

AZKEN MAGNATEA. 80'ko film luzearen bertsioaren euskarazko testu osoa.

Izena	Kargua euskeraz
José María Echevarrieta	Horacio Echevarrietaren semea
Pablo Díaz Morlán	<i>El capitalista republicano</i> liburuaren egilea
Michael Müller-Erdorf	<i>Canaris: vida y muerte del espía de Hitler</i> liburuaren egilea
José Luis Gutiérrez Molina	<i>Capital Vasco e Industria Andaluza</i> liburuaren egilea
Arnout Nuijt	Historialaria
Johann G. Lohmann	Walther Lohmann kapitainaren ondorengoa
Wolfgang Mühl-Benninghaus irakasle doktorea	Humboldt Unibertsitatea, Berlin

TC	TAKE	EUSKARA
00:45	NARRATZAILEA	Batzuetan, amets batek jende askoren patua markatzen du.
00:53	URRUTIKO AHOTSAK	“8.645 botorekin, Bilboko barrutirako diputatu hautatu dute Horacio Echevarrieta y Maruri jauna”, “Ohore handia da niretzat Juan Sebastián Elcano eskola-ontzia uretaratzea”, “Gora Erregea!, Gora!”-“Iberia, Espainiako lehen hegazkin konpainia” “Gora Errepublika!”
01:21	José María Echevarrieta (GAZTELANIA) AZPITITULUAK (Offeko ahotsa)	<p>Ez nintzen konturatzen ongi; guztiz naturala iruditzen zitzaidan hura guztia. Baina, gerora, pentsatu nuen: Nola gertatu zen hura guztia? Eta bat-batean ohartu nintzen zer-nolako altxorraren jabe nintzen gaztetan. Baina orduan dena munduko gauzarik normalena balitz bezala hartzen nuen: Plymouth eta Santander arteko estropada, Santanderreko harrera hura, errege-erreginak ere etorri ziren. Eta iruditzen zitzaidan hura ez zela sekula aldatuko, berdin-berdin jarraituko zuela urteak joan urteak etorri. Baina urtebete besterik ez zen izan.</p> <p>Gero, Errepublika etorri zen, eta akabo dena.</p>

01:59	NARRATZAILEA	Dena posiblea zela zirudien garai batean, Horacio Echevarrietak makinarik perfektuena eraiki nahi izan zuen: munduko itsaspeko bikainena... Eta helburu hori betetzeko, bat egin zuen marinel gutxi ibilitako tokietara joateko prest zeuden itsasgizon ausartekin.
02:15	Pablo Díaz Morlán (GAZTELANIA)	Bere garaiko enpresaburu modernoenetakoa izan zen. Alfontso XIII.aren lagun handia zen. Sinetsita zegoen handienekin lehian jarduteko gaitasuna zuela. Handietakoa baitzen bera ere. Agian, ez zien behar adinako errespeturik izan arerioei, eta pentsatu zuen berea zuela garaipena.
02:36	Michael Müller (INGELESIA) AZPITITULUAK	Canarisek egin nahi izan zuena ezinezkoa zen; erabat ezinezkoa. Nazioarteko hitzarmen haien menpe, Alemaniak ez zeukan itsaspeko edo gerra ontzi handirik eraikitzerik. Dena isilpean gorde beharra zuten, beraz.
3:04	Johann G. Lohmann (ALEMANIA) AZPITITULUAK	Walther Lohmannek propagandako proiektuak bideratu zituen, hala nola, Phoebus zinema etxearekiko lankidetzak, harik eta Phoebusek lur jo eta trama osoa suntsiarazi zuten arte.

03:26	NARRATZAILEA	Hiru gizon, berrikuntzarako irrika biziak elkartuak: magnate errepublikano bat, espia ospetsuenetako bat eta zinemaz maitemindu zen itsasgizon bat. Elkarrekin, erronka jo zioten munduko ordenari, bere garaiari aurea hartu zion itsaspeko bat eraikitze... berebiziko arma. Hauxe da gizon haien ametsa eta ametsa egia bihurtzeko ordaindu behar izan zutena.
04:00	<i>HASIERAKO KREDITUAK</i>	
05:35	NARRATZAILEA	1914ko udan, izugarrizko gatazka zabaldu zen Europa osoan barrena... eta laster hedatu zen Europako mugetatik harago: Gerra Handia zen, lehen mundu gerra. Arma berriak, ordura arte sekula erabili gabeko teknikak, txiki-txiki egiten ari ziren herrialdeak eta gudarosteak. Ordura arte, inoiz ez zen izan halako triskantza gordinik hain denbora laburrean.
06:07	NARRATZAILEA	Ozeanoak odolez eta sugarrez gorritu ziren.

		Britainiarren nagusitasuna kolokan jarri zuen Alemaniako itsas armadak; gerra ontzi handiekin batera, arma berri bat zerabilen Alemaniak: itsaspekoa.
06:24	NARRATZAILEA	Ikusezinak eta ezin hobeto hornituta, itsaspeko haiek itsaso orotan nabigatzeko autonomia zuten. Kaiserrak esku-eskura du bere ametsa: britainiarrak menderatu eta Alemaniarentzat inperio bat eraikitzea.
06:40	NARRATZAILEA	Hilabete gutxiren buruan, argi geratu zen gerra luzea izango zela. Hala, herrialde neutralei begira jarri ziren bi aldeak.
06:57	NARRATZAILEA	Gerrak berebiziko loraldia ekarri zion Espainiako ekonomiari; Bilboko portuan, besteak beste, urrezko aroa izan zen.
07:05	NARRATZAILEA	Elikagaiak, lehengaiak, makinak... milaka salgai tona garraiatzen ziren. Eskariak ez zuen mugarik; ezta prezioek ere. Itzelezko dirutzak egiten ziren goizetik gauera.

07:19	NARRATZAILEA	Dagoeneko ez zen Hanburgo Europan aberats gehien zituen hiria... Bilbok hartu zuen haren tokia.
07:27	NARRATZAILEA	Eta aberatsak mobilizatu ziren gobernuak gerraren onurak arautzea erabaki zuenean. Euren aldarrikapen buru Horacio Echevarrieta y Maruri jarri zuten: enpresaburu bitxia eta Bizkaiko burgesiaren begikoa.
07:43	NARRATZAILEA	Meategien eta ontziola baten jabe zen Echevarrieta, eta ideia errepublikanoak aldarrikatu zituen, bere enpresetan nahiz parlamentuan. Sozialisten eta errepublikanoen koalizioko diputatua zen.
08:06	NARRATZAILEA	Garai hartako oparoaldiaren arrastoak begi-bistakoak dira oraindik Bilbon; Echevarrietaren arrastoa, aldiz, oharkabean igarotzen da. Britainiar ukitua dago XIX. mendean, Industria Iraultzaren garaian, taxututako hiri honetan. Eta ukitu hori bizirik dago gaur egun, orduan sortu eta zabalik jarraitzen duten elkarte eta klubetan.

8:36	Pablo Díaz Morlán (GAZTELANIA)	<p>Bilbo negozioetarako toki ezin hobea zen XIX. mendean, burdina bikaina zuelako. Ingelesek etenik gabe eskatzen zuten burdina, eta, aurrerago, alemanek ere gauza bera egin zuten. Gainera, merkataritza tradizio sendoa zegoen hemen betidanik. Eta, ezaugarri horiek guztiak batuta, negozioak egiteko toki aparta bihurtu zen Bilbo. Horrek eragin handia izan zuen XIX. mendearen azken bi hamarraldietan. Cosme Echevarrietak, Horacioren aitak, adibidez, 15 urtean bildu zuen bere dirutza (15 urte eskasean, esango nuke).</p> <p>Errepublikanoa izan zen, iraultzan ere parte hartu zuen ia... baina, denborak aurrera egin ahala, pentsatu zuen: “Tira, ez dago batere gaizki; itxura ona du honek: negozioak egingo ditut meategiekin”. Gogor lan egin zuen, egia da; baina aberastu egin zen 15 urteko tartean.</p> <p>1902an, hil zenean, Bilboko ondare handienetako baten jabe zen.</p>
09:23	NARRATZAILEA	<p>Negozioetarako trebetasunarekin batera, Horaciok aitarengandik jaso zuen askatasunarekiko eta aurrerabidearekiko konpromisoa. Espainia laikoa, federala, erregerik gabea...</p>

		<p>Ez zuen kontraesanik ikusten ideia haien eta bere dirutzaren artean: “Gizon bat gorrotatu behar al dugu, bada, diruduna izateagatik eta autoan bidaiatzeagatik?”. Espiritu horrekin hartu zuen familiaren negozioaren gidaritza.</p>
09:43	Pablo Díaz Morlán (GAZTELANIA)	<p>Pertsona aktiboa bazara –eta Horacio Echevarrieta gizon hiperaktiboa zen–, eta hark jaso zuenaren moduko oinordekotza jasotzen baduzu, liluragarria gerta daiteke bide horri jarraitu ahal izatea. Echevarrieta ez zen gizon gogoetatsua, ekintza gizona baizik: ekintza zale amorratua.</p> <p>Beraz, ba al dago ondare oparo baten babes baina gauza erosoagorik, ekintza gizon batentzat?</p>
10:09	NARRATZAILEA	<p>Nolanahi ere, itsasoa zuen hark gustukoa. Grina hori ere aitarengandik zetorkion.</p> <p>Horregatik zeritzon “Cosme Jacinta” bere yaterik onenari; estropadetarako, ordea, belaontzi moldaerrazagoak nahiago zituen.</p> <p>Bulego eta lantegietatik urrun, itsaso zabalean, ahal zuen orotan.</p>

10:37	NARRATZAILEA	<p>Bizitoki berria toki nabarmenean aukeratu zuen Echevarrietak. Neguriko etxe dotoreen artean, itsas gaineko begiraleku paregabea zen Punta Begoña.</p> <p>Han, bere besaulkian eserita, ikusmiran zuen guztia: bere meategiak ezker aldean; bere itsasontziak ibaiadarrean, joan-etorrian.</p>
10:56	José María Echevarrieta (AZPITITULUAK)	<p>Etxe zoragarria zen. Oso-oso argitsua. Leihotzar izugarri handiak zituen, eta portua, Abra, hondartza osoa... den-dena ikusten zen handik.</p>
11:26	NARRATZAILEA	<p>Diputatu egin zuen hirugarren legealdian, bere burua burgesen eta langileen artean harrapatuta ikusi zuen Echevarrietak: gero eta zailagoa zen bi aldeen ordezkari izatea, eta zalantzan jartzen hasi zen politikan ba ote zuen tokirik.</p>
11:42	Pablo Díaz Morlán (GAZTELANIA)	<p>Horacio Errepublikanoen eta sozialisten konjuntzioaren izenean aukeratu zuten diputatu, baina halabeharrez: Bizkaiko errepublikanoen artean bere aitak izandako nagusitasuna oinordetzan hartu zuelako. Kongresuko aktetan ikus daitekeenez, oso gutxitan parte hartu zuen Horaciok, eta berak aitortzen zuen ez zeukala hizlari senik.</p>

		<p>Orduan, "Zer egiten zuen gizon hark Kongresuan?", pentsa daiteke.</p> <p>Izan ere, garrantzizko esku-hartze bakarra Lehen Mundu Gerran lortutako etekin izugarriak defendatzeko egin zuen.</p>
12:15	NARRATZAILEA	<p>Berrikuntzarako irrikak bultzatuta, inbertsioak egin zituen energia hidroeletrikoan, eta komunikazioan: egunkari bat erosi zuen, baita lehen irrati etxeetako bat ere.</p> <p>Zementu eta egur fabrikak eta banketxe handietako partaidetzak eskuratuz, bere inperioa zabaldu zuen.</p> <p>Begiak nazioarteko negozioetan jarrita zituen berak, ordea.</p> <p>Handienen mailara iristeko une aproposaren zain egon zen. Eta, gerra garaian, edozein giro da horretarako egokia.</p>
12:45	NARRATZAILEA	<p>Negozio handien bila zebiltzan Mota guztietako pertsonak zebiltzan: bankariak, diplomazialariak, industrialariak, kontrabandistak... Giro horretan, ez zen gaizki moldatzen Echevarrieta: aspalditik ari zen bi aldeekin negozioak egiten, portu aleman nahiz ingelesetara bere burdina bidaltzen, bere ontzietan.</p>

13:05	NARRATZAILEA	<p>Festa haietako batean, nabigatzaile aleman batek erakarri zuen Echevarrietaren arreta: txiletar doinua zuen, eta sekulako egitandiak kontatzen ari zen. Itsas gudu bat, Hego Atlantikoan.</p> <p>Informazio teknikak baliatuta, berak bakarrik britainiar itsas armada osoa hankaz gora jarri, eta garaipena lortu zuen, hura hondoratuta. Itsasontziaren izena mito zen ordurako: "Dresden". Eta ofizial gazte haren izena, ahoz aho zebilen Europako kantzelaritza guztietan: Wilhelm Canaris.</p>
13:40	NARRATZAILEA	<p>Familia dirudun bateko semea, Canarisa amets inperialen artean hazi zen kaiserrari miresten zion familia batean. Diskrezioz jokatzeko zuen, hizkuntzekin bikain moldatzen zen eta britainiar manerak zituen.</p> <p>Horregatik zen ezin hobea mandatu delikatu baterako: Alemaniako itsas armadaren lehen agente sekretua izateko.</p>
14:06	Michael Müller (INGELESA) AZPITITULUAK	<p>1916an iritsi zen Espainiara, itsas armadarentzako lehen zerbitzu sekretua betetzera: itsaspeko alemanak hornitzeko guneak bilatu behar zituen.</p>

		<p>Laguntza teknikoa, erregaia, behar zuten, eta behar horiek asetzeko kokalekuak bilatzea zegokion berari.</p> <p>Isilmandatarien sare bat ere osatu behar zuen, zehatz-mehatz jakiteko Espainiak gerrari buruz zer jarrera zuen eta etsaiek Espainian zer ekintza egiten zituzten. Inteligentziako goren mailako egitekoa eman zioten, beraz.</p>
14:48	José María Echevarrieta (GAZTELANIA) AZPITITULUAK	<p>Bi koloretakoak zituen begiak, bai, eta begirada, , urduria edo.</p> <p>Nola esango nuke nik? Alemana; aleman nabigatzaile batena, gainera.</p> <p>Oso gizon tentea zen, zeremoniatsua, baina oso sinpatikoa.</p>
15:20	NARRATZAILEA	<p>Alemaniak jarrera estutzea erabaki zuen: bere itsaspekoek abisurik gabe erasoko zioten edozein itsasontziri, haren bandera, zama nahiz bidaiariak kontuan hartu gabe.</p> <p>Hala, “erabateko itsas gerrarekin” hasi zen 1917a.</p>
15:36	NARRATZAILEA	<p>Antzinako borroka kodeen amaia izan zen, eta kolpe latza itsas merkataritzarentzat. Blokeo haren bidez, aste gutxian garaipena eskuratzeko itxaropena zuen kaiserrak.</p>

		Alemaniarren kontrako gorrotoa areagotzea besterik ez zuen lortu, ordea.
15:52	NARRATZAILEA	Aldi berean, heroi mota berri bat sortu zen: milaka ontzi hondoratutako komandante gazteak. Itsasontzi txikien buru, asteak igarotzen zituzten itsasoan, harrapakin bila...
16:21	NARRATZAILEA	Echevarrieta izan zuten lehen biktimetakoa. “Manuel” itsasontzia galdu zuen haren ontziolak: gerra hasi zenetik hirugarrena. Baina torpedo hark bete-betean jo zuen enpresaren bihotzean...
16:35	NARRATZAILEA	Denbora zen Echevarrietak jauzia egin nahi zuela, negozio handietan sartu eta industria astunean bidea urratzen hasi... Hura ote zen une egokia? Nola hasi, ordea? Zer aukera gelditzen zitzaion Euskal Herrian?
16:50	Pablo Díaz Morlán (GAZTELANIA)	Ez dugu ahaztu behar Horacio Echevarrieta jaun aberatsa zela, eta ekintzailea, aktiboa, eta ez zeukala tokirik Bizkaian, ez zioten tokirik uzten, ezin zuen beste ontziola bat egin. Hortaz, kanpoan saiatu beharko zuen: huraxe zen aukera bakarra. Hala pentsatu zuen berak.

17:13	NARRATZAILEA	1917ko udaberrian etorri zitzaion aukera, etxetik 1.000 kilometro baino gehiagora, Espainiaren beste muturrean ...
17:24	NARRATZAILEA	<p>Itsasoz inguratuta, itsas tradizio luzeko hiria da Cadiz, “zilarrezko kikara”, eta toki estrategikoan kokatuta dago, Gibraltarretik hurbil. Han, ontziola zahar bat salgai. Echevarrietarentzat aukera ezin hobea zen. Baina inbertsio handia behar zen hura eguneratzeko.</p> <p>Echevarrietak ez zuen zalantzarik egin: bere itsasontziak saldu, eta ontziola erosi zuen.</p> <p>Gerrak sortutako eskariarekin inbertsioa bizkor berreskuratzeko itxaropena zuen, baita irabazi handiak ateratzekoa ere.</p>
18:33	José Luis Gutiérrez Molina (GAZTELANIA)	<p>Echevarrietak ontziola erosi zuenean, sasiak janda zeuden instalazioak; “Vea Murguía” ontziola zaharra izan zen antzina, baina hamar urtetik gora zeramatzan itxita.</p> <p>XX. mendearen lehen hamarraldietan, goitik behera aldatu zen ontzigintza. Aldaketa nagusia, seguru asko ontziak seriean fabrikatzea zen eta aldaketa hartara moldatzeko egin zuen Echevarrietak lehen ahalegina–.</p>

		Horretarako, ontzolan zegoen euskarri bakarra itxi, eta beste bi eraikitzea erabaki zuen (guztira, 3), antzeko tona-kopuruko hiru ontzi seriean ekoitzi ahal izateko. Eta horrelaxe hasi zen ontziola lanean.
19:37	NARRATZAILEA	Handik urtebetera, biziberrituta zegoen ontziola. 1918aren amaieran hasi zen lehen ontziak uretaratzen: neurri ertaineko 6 lurruntzi, gerrako eskariaren bultzadari esker laster jabea aurkituko zuten itxaropenez (eraikiak).
19:59	José L. Gutiérrez Molina (GAZTELANIA)	Echevarrieta salbatzaileen gisara iritsi zen Cadizera; hiria suspertu eta garai bateko oparotasuna itzuliko zion gizona zen. Eta halaxe hartu zuten, bai burgesiako kideek bai langileek.
20:21	NARRATZAILEA	Cadiztik oso hurbil, etxerako bidean zihoan itsaspeko bat. U-128a. Ontziko tenientea ere izatea lortu zuen Canarisek. Erasoa eten eta Alemaniara itzultzeko agindua zuen.

20:39	NARRATZAILEA	Kielera iritsitakoan, harri eta zur gelditu zen han aurkitutakoarekin: itsasgizonak eta langileak matxinatu egin ziren, eta gero eta indar handiagoa hartzen ari zen altxamendua. Iraultza herrialde osora zabaltzen ari zen. Garaipena agindu zion gobernuaren kontra matxinatu zen herria.
21:03	NARRATZAILEA	Non zen kaiserra? Hondamenaren errudun jo zutelarik, Gillermo II.ak erbestera ihes egin behar izan zuen. Holandan finkatu, eta bere burua zuritu zuen, esanez berak ez zuela ardurarik izan hondamenean, eta agintari berriei egotzi zien Alemaniaren gainbeheraren errua. Kaos hartan, Weimarko Errepublika sortu zuten indar politikoeak.
21.25	Michael Müller (INGELESA) AZPITITULUAK	Gerra amaitu eta Canarias Kielera itzuli zenean, hainbeste hilabetez atzerrian egon eta halako zeharkaldi luzea eginda, kolpe latza hartu bide zuten berak eta bere gizarte mailako gainerako ofizialek. Badia hartan sartutakoan ikusi zutena ikusi, eta haiek alde egitean utzitakoa gogoratzea shock latza izango zen inondik ere.

		Identitate arazo handia eragin zien horrek, ez baitzekiten hurrengo aste eta hilabeteetan zer gertatuko zen ezta beren aberriaren patua zein izango zen ere.
22:05	<i>BERRIEMAILEA (INGELESA)</i>	<i>ARMISTIZIOA! 1918ko azaroan, goizeko 11etan, borrokak eten dira. Amaitu da gerra.</i>
22:19	NARRATZAILEA	Europa osoak gatazkaren amaiera ospatu zuen... Alemaniak izan ezik; itxuraz, indarrean jarraitzen zirauen han gatazkak. Elkarren kontra ari ziren langile iraultza aldarrikatzen zutenak eta antzinako erregimena berrezarri nahi zutenak. Demokrazia gaztea borroka giroan jaio zen, eta kaleak guduleku bihurtu ziren berriro ere.
22:49	NARRATZAILEA	Traizio egin zietela uste zutenen artean, Canarias zegoen. Eta, kaiserrarekiko mirespentak bultzatuta, ultraeskuindarrekin lankidetzan hasi zen. Freikorps talde paramilitarra estatu kolpea ematen saiatu zen behin baino gehiagotan, eta ekintza armatu ugari egin zituen.

23:04	NARRATZAILEA	Ekintza odoltsuena espartakista zeritzenen taldeko bi buruzagi iraultzaileren hilketa izan zen. Rosa Luxemburg eta Karl Liebnec, langile borrokaren sinboloak hil zituzten, poliziak atxilotu ondoren. Canaris trama hartan nahastuta egon zen.
23:21	<i>Michael Müller</i> (INGELES) AZPITITULUAK	Canarisek espetxetik ihes egiten lagundu zion Luxemburgen eta Liebnecen hiltzaileetako bati. Lotura estuegia izan zuen eskuineko eta iraultzaren kontrako sektoreen ekintza kriminalekin.
23:36	NARRATZAILEA	Iritzi publikoaren aurrean nabarmenegi gelditu zenez, lehen lerrotik atzera egin behar izan zuen Canarisek. Hala, itsas armadan destino apal bat hartu, eta berriro zerbitzurako deia jaso zain gelditu zen.
23:58	NARRATZAILEA	20ko hamarraldiaren hasieran, Madril kokaleku ezin hobea zen Echevarrietaren moduko enpresaburu handinahi batentzat. Bere negozioen egoitzarako, 14 balkoi eta bulego zituen pisu bat aukeratu

		zuen, Gorteetara begira... Baina, Espainian, amaitua zen negozio errazen garaia: Gerra Handia amaitu zenetik, gero eta nabarmenagoa zen krisia, eta ontzigintzan, bereziki.
24:26	Pablo Díaz Morlán (GAZTELANIA)	<p>Hasieran, bazegoen itsasontzi eskaria, bikain; primeran zebilen ontziola, milaka langile ari ziren han, irabaziak ematen zituen... nahiko ongi zihoan dena.</p> <p>Non zegoen koska, orduan? Halako garai oparo batean, edozein ontziolak aterako zuen onura, eta halaxe gertatu zitzairen Cadizko ontziolei ere. Baina garai zailak iritsiz gero, ontziola batek beste “zerbait” beharko zuen atzean, iraungo bazuen. Zer baina? Bada, gutxienez, itsasontzi konpainia bat, edo harreman pribilegiatua Estatuarekin, bestela.</p>
25:08	NARRATZAILEA	<p>Aurreikuspenek huts egin zuten: itsas armadaren kontraturik gabe, gainbehera etorri zen ontziola.</p> <p>Lantegia itxi behar ez izateko, edozer enkarguri baietz esateko prest zen Echevarrieta. Cadizen eraiki zuten, esaterako, Bartzelonako geltoki baterako metalezko zubi bat.</p> <p>Ez zen halabeharrez gertatu: metroko 2. linea izan zen Echevarrietak</p>

		Katalunian egindako negoziotako bat.
25:46	NARRATZAILEA	Hainbat urtez, biltegiak, plataformak eta burdinbideetarako zubiak eraikiz jarraitu ahal izan zuten aurrera... baina noiz arte eutsi ahal izango zion ontziolak?
25:59	NARRATZAILEA	Geldialdi hartan, Espainiari bultzada ekonomikoa emateko gakoa aurkitu zuela pentsatu zuen gobernuak. Maroko iparraldean, amets inperialari hauspoa eman zion gatazka bat sortu zen. Espainiaren azken koloniako gerrak ilusio, aberastasun eta aintza militarren promesa zekarren. Eta hura indarberriturik, suspertu egin zen herrialdea bera ere...
26:10	<i>Errotulua pantailan (GAZTELANIA)</i>	Espainiako tropak Rifteko fronte guztietan kokatzen ari dira.
26:22	NARRATZAILEA	Marokon, erresistentziak buruzagi bitxi bat izan zuen gidari. Abd-el-Krimek tribu guztiak bildu, eta Riften errepublika independente eta demokratikoa ezartzearen aldeko aldarrikapena bere egin zuen.

26:33	<i>Errotuluak pantailan</i> (GAZTELANIA)	Hondamena, Arruit mendian: Rifteko tropek Espainiako armada suntsitu dute.
26:38	NARRATZAILEA	Ekinaldi militar erraza izan behar zuena hondamen bihurtu zen: 10.000 militar espainiar hil ziren Rifteko tropen ekinaldi koordinatu batean. Anualgo hondamenean, 600 espainiar preso hartu zituzten, gainera. Abd-el-Krimek bahisari handia eskatu zuen haiek aske uztearen truke. Espainia lur jota zegoen.
26:59	Pablo Díaz Morlán (GAZTELANIA)	1922an, etsita zegoen erregimena, eta Marokoko auziari nolabaiteko irtenbidea eman nahi zion. Azkenean, erabaki zuten Horacio Echevarrieta izango zela horretarako egokia. Zergatik? Abd-el Krimek begirunea ziolako eta solaskidetzat onartzen zuelako. Kontua zen ordura arte Horacio Echevarrietak, beste askok ez bezala, nolabaiteko jarrera ohoragarria erakutsi ziola. Hala, Abd-el Krimek Echevarrieta solaskidetzat onartu, eta atxiloak aske uzteko negoziazioak hasi zituzten.

27:29	NARRATZAILEA	<p>Echevarrieta 1923ko urtarrilaren 26an itsasoratu zen Malagan, Alhucemaserantz. Itsasontzian zerman Riftekoek eskatutako bahisaria: 4 milioi pezeta, 20 tona txanpon.</p> <p>Bi urteko atxiloaldia izan zenez, ez zegoen erabateko ziurtasunik atxilotuen kopuruari buruz ezta egiteko haren arrakastari buruz ere.</p>
27:56	<p>José María Echevarrieta (GAZTELANIA) AZPITITULUAK</p>	<p>Iritsi ziren hitzordua egina zuten hondartzara, itsasontziarekin, eta inor ez. Aitak esan zuen: “segada jarriko dieten beldur izango dira... neu joango naiz”.</p> <p>Txalupa hartu, marinelekin, hondartzan lehorreratu, eta “zoazte” esan zien aitak besteei. Bakarrik gelditu zen, eta bakarrik zegoela ikusi zutenean, orduan jaitsi ziren mairuak.</p>
28:23	NARRATZAILEA	<p>Egun bete iraun zuten negoziazioek. Abd-el-Krimek gatibuak askatu zituen, pixkanaka. 300 gizon zituzten beren esku: soldaduak, ofizialak eta jeneral bat. Azkena askatu arte ez zuen hondartzatik alde egin Horacio jaunak.</p>
28:41	NARRATZAILEA	<p>Afrikako pasadizo hark elezaharrari bide eman zion.</p>

		Ohore handiz hartu zuten: modako gizona zen Echevarrieta Espainian.
28:54	NARRATZAILEA	Eta hari eskatu zioten Madrilgo obra enblematikoa: Kale Nagusia. Hura izan zen Echevarrietaren negozio onuragarrienetakoa. Baina beste batzuk ere izan zituen. Enkarguak jasotzen hasi ziren ontziolan. Haren garaipena krisiaren amaierarekin bat etorri zen, amaiera bitxi samarra izan bazen ere...
29:10	NARRATZAILEA	Estatu kolpe baten bidez, Miguel Primo de Rivera jenerala iritsi zen gobernura eta plan modernoak eta industria nazionala ezartzeko urratsak iragarri zituen. Azkenean, proiektu handiak!
29:20	NARRATZAILEA	Echevarrietak harreman ona zuen diktadorearekin, baita Alfontso XIII.a erregearekin berarekin ere. Alfontso XIII.ak, adiskidetasuna ez ezik, noblezia-titulu bat ere eskaini zion: Erreskatearen markesa. Eta, lagun eta errepublikano gisa, hari uko egin zion Horaciok.
29:35	NARRATZAILEA	Une hartan, aspaldiko ezagun batek jo zuen Echevarrietaren atea. Canarisek ere ibilbide luzea egin zuen.

		Orain, korbetako kapitaina zen, eta egiteko berezi bat betetzera iritsia zen Madrilera: egitekoa zen Alemania, gerra amaitu ondorengo hondamenetik ateratzea.
29:56	NARRATZAILEA	Versaillesen, estu hartu zuten garaileek Alemania. Alemaniako militarrek ez zuten itun hura sinatu nahi. Izan ere, bere lurraldearen eta indar armatuaren parte handi bat kentzen zitzaion herrialde apaldua baitzen Alemania.
30:12	NARRATZAILEA	Txatarra bihurtutako armadaren irudia Alemaniaren amaia izan zen, askorentzat. Baina okerrena ez zen hori izan:
30:25	NARRATZAILEA	Izugarrizko dirutza ordaindu behar izan zien irabazleei, eta Alemaniako ekonomiak hondoa jo zuen, lehendik ere ez baitzegoen oso sendo. Prezioak neurrigabe igo ziren, hiperinflazioak miseriara eraman zuen herrialdea.
30:39	NARRATZAILEA	Kalte-ordainak kobratzeko, Frantziak eta Belgikak Ruhr bereganatu zuten, Alemaniako eskualde aberatsena.

		Inbasio harekin, gainez egin zuen Alemaniaren pazientziak, eta sektore kontserbadoreenei arrazoia eman zien: Alemaniak boterea berreskuratu behar zuen, ezinbestean.
30:56	Michael Müller (INGELESA) AZPITITULUAK	<p>1923an Ruhr inbaditu izana mugarria izan zen Alemaniako armada berrantolatzeko planak abian jartzeko. Plan horiek Versaillesko Itunaren ondoren prestatzen hasita zeuden, armadan inork ez baitzituen han ezarritako murrizketak onartzen.</p> <p>Hasiera-hasieratik saiatu ziren debekuak saihesteko bideak bilatzen. Errusiarekin lankidetzan hasi ziren Alemaniako tropak; itsas armada Japoniarekin eta Argentinako itsas armadarekin saiatu zen; baina, azkenean, Espainia zen tokirik aproposena, Japonia eta Argentina baino hurbilago zegoelako. Eta, gainera, Canarias zeukaten.</p>
32:10	NARRATZAILEA	Madrilera egindako bisitan, argi ikusi zuen Canarisek bera zela Alemaniako itsas armada berrarmatzeko bazkiderik onena... Honelaxe azaldu zuen gau hartan bertan Berlinera igorritako txosten batean.

32:23	NARRATZAILEA <i>CANARISen</i> <i>AHOTSA</i>	“Espainiako gobernuaren planak balia ditzakegu, gure ereduak hemen eraiki eta haien armadan probatzeko. Horretarako, gakoa izan daiteken gizona aurkitu dut: Espainiako industrialari aberatsena. Haren ontziola ez dago guztiz hornituta, baina handinahia da, eta harroa, eta tratu errazekoa... Horacio Echevarrieta du izena”.
32.50	NARRATZAILEA	Pieza guztiak agerian jarrita, agindu zioten planari ekiteko prest zen Canaris. Berak mugituko zituen hariak Espainian.
33.03	Michael Müller (INGELESA) AZPITITULUAK	Echevarrieta ikusita, harrituta gelditu bide zen Canaris: industriako magnate peto-pettoa, egunkari baten eta ontziola baten jabea, goi mailako gizarteko jendea ezagutzen zuena, erregea barne! Exekutibo eta magnate handia, inondik ere! Era horretako pertsonak liluratu egiten zuten Canaris. Hala, Echevarrietak ez zuen neke handirik izan Canarisengana hurbildu eta haren isilmandatari bihurtzeko.
33:48	Pablo Díaz Morlán (GAZTELANIA)	Alemanek aliatu perfektua aurkitu zuten; 1923an erregimenari sekulako mesedea egin berri ziona, gainera; eta Alfontso XIII.aren adiskidea, gainera.

		Horacio Echevarrieta jauna zen alemanek behar zutena! Ez zen hautagai posible bat, beste barik; : hautagai ideala zen.
34:21	NARRATZAILEA	Echevarrietak gonbita onartu, eta 1926ko udan Alemaniara abiatu zen. Abentura handia izan zen “Cosme-Jacinta” ontzian Baltikoraino egindako bidaldia. Horacio jabetzen zen bere patua zela aurrez aurre, luzaroan itxarondako aukera.
34:54	NARRATZAILEA	Berlin kontinenteko hiriburu dinamikoena zen, 1926an. Kaleak bizi-bizi zeuden, borborka... mirari ekonomiko bat zen. Neurri handian, amerikarren laguntzari zor zion, hari esker sendotu baitzen Weimarko Errepublika.
35:19	NARRATZAILEA	Arratsaldero, milaka lagun biltzen ziren zinema aretoetan. Jendeak ilara luzeak osatzen zituen Chaplinen edo Fritz Langen azken filma ikusteko. Modako ikuskizuna zen.
35:32	NARRATZAILEA	Bizitzeko grina eta aurrera egiteko irrika nagusi ziren giroan.

35:39	<i>Michael Müller</i> (INGELESA) AZPITITULUAK	1920ko hamarraldiaren erdialdean jo zuen goia Weimarko Errepublikak. Modernitate ikusgarria, 20ko hamarraldiko asaldura hura! Eta orduko teknika! Garapen teknologikoaren aldeko apustua egin zuten, eta ia edozer egin zitekeela sinetsita zeuden. Etorkizunerako plan berriak sortzeko garaia zen, eta etorkizun oparoa izango zela zirudien.
36:10	NARRATZAILEA	Echevarrieta eta beretarrak adeitsu hartu zituzten alemanek. Inperio zaharraren ikur guztiak erakutsi zizkieten anfitrioiek. Besteak beste, Sans Souciko jauregia, Potsdamen, lehen kaiserraren egoitza.
36:29	José María Echevarrieta (GAZTELANIA) AZPITITULUAK	Besoak zabalik hartu gintuzten. Jakina, Versaillesko Itunaren ondoren, Alemaniak ez zeukan armekin probarik egiterik, ezin zuen ezer egin. Eta halaxe hartu gintuzten alemanek, bai; ezin hobeto portatu ziren aitarekin.
36:54	NARRATZAILEA	Canarisekin batera, beste itsasgizon aleman batzuk ere baziren (jarraigoan). Goi mailako beste ofizial bat tartean, manera bitxi samarrekin: Walther Lohmann kapitaina, ezkutuko programan garrantzi handiko zereginarekin.

37:11	NARRATZAILEA	Antzinako almirantego inperialaren egoitzan egin zuten bilera. Lohmann arduratu zen aurkezpenak egiteaz:
37:20	NARRATZAILEA <i>LOHMANNen</i> AHOTSA	“Ongi ezagutzen dituzue gure industria, gure ingeniariak... Alemaniar diseinuen nagusitasuna agerian gelditu da munduko itsaso guztietan. Orain, bazkide bat behar dugu itsasontzi berriak eraikitzeko”.
37:33	NARRATZAILEA <i>ECHEVARRIETAre</i> AHOTSA	“Orduan, bete-betean asmatu duzue: ontziolarik bikainena daukat, eta, ongi dakizuenez, harreman ezin hobeak Espainian”.
37:41	NARRATZAILEA <i>CANARISen</i> AHOTSA	“Horacio jauna, gure itsasontziak Espainiako itsas armadari saltzeko modua izango zenuke?”
37:47	NARRATZAILEA <i>ECHEVARRIETAre</i> AHOTSA	“Ez kezkatu, jaunak: zuek diozuen bezain onak badira, lortuko dugu, ziur naiz. Atsegin handiz eraikiko ditut Cadizen ontzi sofistikatu eta modernoena: zuen itsaspekoak”.
38:05	<i>Michael Müller</i> (INGELESA)	Itsaspeko berriak garatzea erabateko lehentasuna zen garai hartako itsas

	AZPITITULUAK	armada guztientzat, huraxe baitzen etorkizuneko arma, nolabait. Inork ez zuen zalantzan jartzen gerra ontzi handiak behar zirela, baina itsaspekoa zen garai hartako maila goreneko teknologia.
38:33	NARRATZAILEA	Plana ongi atera zedin, Echevarrietak armadaren konfiantza bereganatu behar zuen. Erregearen babesa lortu beharko zuen lehen-lehenik. Alfontso XIII.a itsasontzi zale amorratua zen, makina modernoen zalea, Alemaniatik zetorren ororen zalea.
38:47	NARRATZAILEA	Baina erabakia ez zegoen haren esku soilik: ordurako, itsas armada itsaspekoak eraikitzen ari zen, Cartagenan. Bere ohiko hornitzailearekin, gainera: Vickers partaide zuen partzuergo batekin. Britainiarrek monopolioa balitz bezala kontrolatzen zuten Espainiako merkatua.
39:02	NARRATZAILEA	Monopolio hura hausteko, armadan itzal handia zuten zenbait itsasgizon hartu Echevarrietak. Ez zen aski itsaspeko onena edukitzea: gobernuaren mesedea behar zuen.

39:12	Pablo Díaz Morlán (GAZTELANIA)	Edozein enpresaburuk, atzean teknikari aleman haiek edukita eta Echevarrietak zituen neurriko asmoak edukita, nahitaez bere alde jarri beharko zuen Espainiako armada. Horretarako bidea, jakina, Alfontso XIII.arenan zuen eragina baliatzea zen; Alfontso XIII.a baitzen gakoa. Garai hartan, erabakiren bat hartu aurretik, Alfontso XIII.a jakitun egoten zen eta iritzia emanda. Eta une hartan Horacio Echevarrietarekin bat egiteko aldekoa zen Alfontso XIII.a. Gainera, ezin uka daiteke, ongi konpontzen zirela; lagunak ziren.
39:48	José María Echevarrieta (GAZTELANIA) AZPITITULUAK	Aita bisitan joaten zitzaion; erregeak deitu egiten zion, gauzak galdetzeko, kontsultak egiteko. Aita hara joaten zen; erregearen laguna zen, eta erregeak uste osoa zuen aitarengan.
40:07	NARRATZAILEA	Plana udan jarri zen abian. Alemaniako ingeniariak bisita egin zuten Espainiara. Ordezkaritza haren buru, beste agente sekretu bat: Eberhard Messerschmidt, Canarisen lankide ohia, haren begi-begikoa.
40:21	NARRATZAILEA	Pieza guztiak prest zeuden, beraz. Partida hasteko, eroslea konbentzitzea

		bestarik ez zen falta, eta, horretarako, oso gora jo beharra zegoen...
40:45	NARRATZAILEA	Echevarrieta trebea zen egoera bakoitzerako agertoki egokienak aukeratzen. 1926ko udan, bere bizitzako negozioerik handiena planteatzera zihoan La Concepcióneko bere etxaldean.
41:10	Pablo Díaz Morlán (GAZTELANIA)	Garai hartako burgesen etxeak gizartearen aurrean agertzeko erakusleihen modukoak ziren: “Hemen bizi da Horacio Echevarrieta jauna”. Eta Malagako La Concepcióneko etxaldea ikusi eta “ene, hau jaun handia” esateko modukoa zen. Hantxe egiten zien harrera goren mailako pertsonei. Jauregiek gizarte funtzio nabarmena zuten.
41:39	NARRATZAILEA	Erregeak eta Primo de Riverak egindako bisita bat baliatuta, afaria antolatu zuen, eta, Canaris eta Messerschmidt bertan zirela, topa egin ondoren, proposamena bota zion erregeari.
41:49	NARRATZAILEA	“Berorren maiestatea, munduko itsaspeko bikainena eraiki nahi dugu

	ECHEVARRIETA <i>Aren</i> AHOTSA	Cadizen. Ez al zaizu iruditzen gure armadak itsaspeko hori eduki beharko lukeela?”
41:57	NARRATZAILEA ERREGE <i>Aren</i> AHOTSA	“Horacio, atsegin eman nahi nizuke, baina badakizu dagoeneko ari garela itsaspekoak eraikitzen britainiarrekin, eta bikainak gainera”.
42:07	NARRATZAILEA CANARI <i>Sen</i> AHOTSA	“Baina, Maiestate hori, gure itsapekoak itsasoan jabe egin ziren Gerra Handian. Halako beste gatazkarik gertatuz gero, munduaren jaun eta jabe lirateke berriz ere”.
42:17	NARRATZAILEA	Gauak aurrera egin ahala, itsaspeko alemanak armadan haren tokia izango zuela zirudien. Baina baldintza bat ezarri zuen erregeak: erosi aurretik, baldintza tekniko oso zehatz batzuk bete behar zituen. Eta horrek esan nahi zuen prototipo bat eraiki beharko zela, erregearen hitza beste bermerik gabe.
42:49	NARRATZAILEA	Echevarrieta gustura gelditu zen: armadaren hornitzaile bihurtu zen, eta, afaria amaitzerako, jaso zuen lehen enkargua.
42:58	José L. Gutiérrez	Cartagenarekin lehia estuan, Echevarrietak lortu zuen Torpedoen Fabrika

	Molina (GAZTELANIA)	Nazionala Cadizen eraikitzea, eta, gainera, teknologia alemanez hornitzea; alegia, Echevarrietak eskaintzen zuen teknologiaz hornitzea, berarekin lehian sartutako italiar eta britainiarrenaren orde.
43:22	NARRATZAILEA	Espainiako armadarako torpedoen hornidurarekin abiatu zen Echevarrietaren eta Alemaniaren ontzigintza arloko lankidetza. Planaren barruan, 10 urtean 1.000 unitate eraikitzea zegoen, eta instalazio berriak, ontziolan.
43:46	NARRATZAILEA	Laster hasi ziren Cadizera planoak eta ingeniariak iristen... baina agiri ofizialetan ez zen Alemania agertzen, beste jatorri bat baizik.
44:01	NARRATZAILEA	Alemaniko itsas armadaren benetako egoitza Holanda zen. Kaiserra ez ezik, han babestu ziren arma enpresak eta ekoizleak. Rotterdam paradisia zen ezkutatzeko. Munduko portu handieneko ezin konta ahala biltegiren artean, edozein tailer edo industria igarotzen zen oharkabean. Kokaleku ezin aproposagoa zen, beraz, Versaillesko Itunak debekatutako

		jarduetarako.
44:27	<i>Arnout Nuijk</i> (INGELESA) AZPITITULUAK	<p>Alemaniko enpresek ez zuten susmo txarrik sortu nahi Holandan betetzen ari ziren proiektu militarrei buruz.</p> <p>Hala, izen arruntak hartu eta tarteko enpresak erabili zituzten.</p> <p>Horrela, inork ez zuen loturarik aurkituko holandar enpresen eta Alemaniako jatorrizko jabeen artean. Horregatik ziren izen neutroak, hala nola I.v.S, Ingenieurskantoor voor Scheepsbouw, edo “Itsas eraikuntzarako ingeniari-tza”, inolako susmorik ez sortzeko.</p>
45:08	NARRATZAILEA	<p>I.v.S-ren atzean Alemaniako itsas armada zegoen. Haren kapitala zenbait ontziolaren artean ezarri zuten, Krupp buru zutela.</p> <p>Eta, Holandan, bat egin zuten Fijenoordekin, tradizio luzeeneko Rotterdameko ontziolarekin. Haren euskarri eta dikeetan eraiki zituzten Alemaniaren ezkutuko programako lehen modeloak.</p>

45:55	<i>Arnaut Nuijk</i> (INGELESA) AZPITITULUAK	I.v.S.rekin itsaspekoak eraikitzeke akordioaren arabera, ekoizpen kostuen %25 bete behar zuten holandarrek, baita ontziolarako langileak ezarri ere.
46:10	<i>ERROTULUA</i> <i>PANTAILAN</i> (ALEMAN)	Fijenoord etxeak Rotterdamen eraikitako turkiar itsaspeko baten proba.
46:11	NARRATZAILEA	I.v.S. partzuergoak 1927an eman zituen lehen emaitzak: 500 tonako bi itsaspeko, aurrez eraikitako itsaspeko sorta guztiak baino hobeak. Gerra Handiaz geroztik Alemaniak eraikitako lehenak ziren.
46:30	NARRATZAILEA	Aliatu batzuei eskaini zizkieten, eta, azkenean, Turkian jarraitu zuten haiek probatzen. I.v.S.ko ingeniariak diseinu berri bat lantzen hasita zeuden ordurako: itsaspekoen belaunaldi berri baterako eredua. Eraikuntzarako bazkide bat behar zuten, ordea; hura erosiko zuen itsas armada bat ere bai.
46:50	NARRATZAILEA	Halako batean, ezusteko zailtasunak sortu ziren: Echevarrietak negozio gehiegi zituen, eta finantza zailtasunak sumatzen hasi zen.

		Kreditu faltak kolokan jarri zituen haren egitasmoak. Hala, plan bat asmatu, eta erronka jo zien bazkideei.
47:10	NARRATZAILEA <i>ECHEVARRIETAren</i> AHOTSA	“Adiskide agurgarriak, britainiar talde batek proposamena egin dit itsasontziak eraikitzeko, eta finantzaketa sendoa eskaintzeko prest daude. Cadizen egin beharreko inbertsioak direla eta, eskaintza kontuan hartu beharrean nago”
47:23	NARRATZAILEA	Berlinen, asaldura handia sortu zuen Echevarrietaren telegrama hark. Canarisek ez zuen ezer ulertzen: “Ez al zen, bada, Espainiako gizon aberatsena?” Lohmannen iritzian, Espainiaren gaineko kontrola bereganatzeko aukera ezin hobea zen.
47:35	NARRATZAILEA	Echevarrietak Alemaniaren proposamen hau jaso zuen: gobernuak bermatutako mailegu bat, 240.000 libera... Ordainetan, 10 urtean Alemaniarekin lotuko zuen kontratu bat sinatu behar zuen.
47:49	Pablo Díaz Morlán	Bi aldeek lortu zuten beren helburuak betetzea.

	(GAZTELANIA)	Alemanek txotxongilo bat izango zuten; eta Horacio Echevarrietari ez zitzaion axola, horren trukean negozio gizon handia izango bazen Espainian. Hortik abiatuta, baldintza batzuk onartu zituen, itxuraz oso gogorak, adibidez alemanentzako eskusibotasuna, haiei denean men egin beharra. Bere negozioak aurrera ateratzeko bide bat zen beretzat, azken batean.
48:27	NARRATZAILEA	Walther Lohmannek bisitaldi ofiziala egin zuen. Diru ezkutuekin eraikitako prototipoetako batean iritsi zen: “Bárbara” errotore-ontzian.
48:37	NARRATZAILEA	Lohmann programaren nondik norakoak egiaztatzeraz etorri zen. Baina non zen Canaris? Horixe galdetzen zioten denek beren buruari, eta baita egia ote zen ere Lohmann zela Alemaniako itsas armadaren hariak mugitzen zituena.
48:47	<i>Michael Müller</i> (INGELESA) AZPITITULUAK	Lehen Mundu Gerraren ondoren, 1923ko inbasioaren ondoren, Lohmannek 10 milioiko ondare izugarria eskuratu zuen, urrezko lingotetan, Alemaniako itsas armada berregituratzeko, isilpean. Canarisekin harremanetan jarri zen orduan, biak proiektu berean lanean ari

		<p>baitziren eta elkarri laguntzen baitzioten, nolabait esateko.</p> <p>Uste dut garai hartarako tentu handiz zebilela Canarias.</p>
49:23	NARRATZAILEA	<p>Irrika biziz aditzera eman zituen Espainiarako planak Lohmannek: hegazkinak eraiki nahi zituen, autoak, artilleria, hegazkin ontziak... Baina nor zen gizon hura, benetan, hainbeste proiektu proposatzeko?</p>
49:36	NARRATZAILEA	<p>Walther Lohmann Garraioen Itsas Dibisioaren gailurrera iritsi zen, Gerra Handian egindako lanari esker. Haren igoera bizkorrean, hala ere, eragin handia izan zuten familiaren harremanek. Johann Lohmann aitarengandik oinordekotzan jaso zituen Hansako espiritua eta itsasgizon eta enpresaburu bokazio bikoitza.</p>
49:53	Johann Lohmann (ALEMAN) AZPITITULUAK	<p>Antza, aitak eta Alfred anaiak animatu zuten Walther Lohmann era horretako negozioetan sartzeko, familian ongi errotuta baitzegoen enpresa tradizioa.</p>

50:28	NARRATZAILEA	<p>Agintzen zuena bera zela erakusteko, presioa egin zion Lohmannek Echevarrietari: “Non da itsaspeko berria? Berehala eraiki behar zen prototipo berria”.</p> <p>Alemaniarra itzuli aurretik, elkarren arteko hurrengo negozioa abian jarri zuen: Espainiako lehen hegazkin konpainia.</p>
50:56	NARRATZAILEA	<p>Cuatro Vientosko aerodromoan egin zuten Iberiaren aurkezpena. Echevarrietak harro erakutsi zituen bere hegazkin modernoak erregearen aurrean. Lufthansaren ekarpena ziren; hura zen kapital gehienaren ezkutuko jabea.</p>
51:12	Pablo Díaz Morlán (GAZTELANIA)	<p>Alemanek interes handia zuten, Espainiara baino gehiago, Hego Amerikara bidaiak egiteko; eta, itxuraz, Espainia gakoa zen Hego Amerikan sartzeko. Alemanek beti izan zuten interes hori.</p> <p>Eta Iberia hori gauzatzeko tresnetako bat izan zen.</p>
51:34	NARRATZAILEA	<p>Kontinente arteko lehen ibilbide handian, bidaiari berezi bat izan zuten.</p>

51:43	NARRATZAILEA	Canaris Buenos Airesera zihoan, programarako bazkide berrien bila. Dagoeneko ez zuen interesik Espainian: Echevarrieta ahul zegoen, baina bere benetako kezka Lohmann zen.
51:59	Michael Müller (INGELESA) AZPITITULUAK	Lohmannek eta Canarisek bata bestearen atzetik garatu zituzten proiektuak elkarrekin. Itsaspekoen ondotik, torpedoak, motorrak, ontzi bizkorrak; hegazkin konpainia gero... proiektu aeroespazialak antolatzen zituzten. Negozio izugarria zen, gero eta itzelagoa. Amets bat, ameskeria moduko bat, ez dakit, horrelako zerbait.
52:30	Pablo Díaz Morlán (GAZTELANIA)	Aurrerago, gertatu zena ikusita, pentsatzen duzu: “Baina a zer bilbotarkeria, a zer astakeria, nola bururatu zitzaion horrelako zerbaitetan sartzea?”. Baina 1925 eta 1928-29 bitartean, posible zen. Zergatik ez, bada? Zergatik ez, atzean Alemaniaren interesa egonik? Alemanak atzean edukita, edozer gauza zen egingarria garai hartan.
52:53	NARRATZAILEA	Cadizko ontziolari aintza-eguna iritsi zitzaion, behingoz.

		1927ko martxoaren 5ean, “Juan Sebastián Elcano” eskola-ontzi moderno bat uretaratu zuten. Horacio Echevarrietari armadaren hornitzaile ospea eman zion.
53:28	José L Gutiérrez Molina (GAZTELANIA)	Juan Sebastián Elcano ontziaren bidez, Cadizko ontziolak zuzeneko lotura izan zuen ontzigintza militarrekin eta Itsas Ministerioko agintariekin. Eta, gainera, eskola-ontzia ikur bihurtu zen, hiriarena nahiz ontziolarena berarena.
53:55	NARRATZAILEA	Une hartan jo zuen goia Echevarrietak, ontzigile gisa. Itsasontziekiko zaletasunari esker, harremana estutu zuen erregearekin. Garaile sentitzen zen, eta edozer eskura zuela pentsatzen zuen.
54:20	NARRATZAILEA	Herrialdeko txoko guztietan zoriondu zuten. Haren kudeaketa lana funtsezkoa izan zen Euskal Kontzertu Ekonomikoan. Esker ona eta adeitasuna aurkitu zituen nonahi.

54:43	NARRATZAILEA	Gailurrean zela, ez zuen oztoporik ikusten bere ametsa lortzeko, bere proiektu handiari ekiteko unea zen: munduko itsaspeko onena eraiki Cadizen.
55:02	NARRATZAILEA	Uda hartan, ordea, ezusteko berriak zabaldu ziren Alemanian.
55:24	NARRATZAILEA	Kazetari batzuek egindako ikerketa batean, agerian gelditu zen Alemaniako itsas armadaren sare bitxi bat. Zinema enpresa batek haren onurak lortu zituen, itxuraz. Egunkari guztietan agertu zen berria, izen honi lotuta, betiere: Walther Lohmann.
55:38	<i>Michael Müller</i> (INGELESA) AZPITITULUAK	1927ko udan, abuztuan nik uste, lehen artikuluak argitaratzen hasi ziren Lohmannek itsas armadatik oso urruneko esparru batean zeuzkan negozioei buruz. Inolako kontrolik gabe, berealdiko dirutza inbertitu zuen Lohmannek zinema industrian. Berliner Tageblateteke artikuluetan, lehenik, eta Weltbühnenekoetan, ondoren, Phoebus Film etxean egindako inbertsioak deskribatu zituzten.

56:13	NARRATZAILEA	Lohmannek dirutza jarri zuen jendartean arrakasta handiko filmak egiten ari zen ekoiztetxe batean. Phoebusek ospe handia eman zien Alemaniako zinema izar batzuei, baita zuzendari ezagunei ere. Enpresa buru Ernst Hugo Correll zen: Alemanian zinema herrikoia egiteko ideiak Hollywoodetik inportatu zituen ekoizle bat. Correllek Lohmann konbentzitu zuen inbertitzeko zinema soinudunak zinema industria irauli zuen garai hartan.
56:41	NARRATZAILEA	Lohmannek ezarritako 3 milioi markoei esker, aurrekontu altuagoko filmak ekoitzi ahal izan zituen Phoebusek: generoko zinema, ekintza filmak, dramak eta komediaren bat... Phoebus bera arduratzen zen ekoizpen haiek Alemanian zabaltzeaz eta erakustez; baina, zoritxarrez, lan haien zati txiki batzuk besterik ez dira gorde.
57:03	Prof. Muehl Beringaus (ALEMAN) AZPITITULUAK	Phoebus Alemaniako zinema ekoiztetxe handienetakoa zen. Apartekoa zen, ekoitzi ez ezik, bere filmak banatzeaz ere arduratzen zelako, eta zinema aretoak zituelako, Kurfürstendammen, Berlin erdian. Hortaz, estreinaldiak eragin handikoak ziren gero filmak Alemaniako Reich osora zabaltzeko.

57:36	NARRATZAILEA	“Zinemaren palazioa” ez ezik, Phoebusek estudioak ere bazituen Berlinen, gaur egun eliza bat dagoen tokian. Garai zailetan ere ekoizpenari eustea lortu zuten, itsas armadaren diruari esker. Baina zein zen inbertsio haien benetako helburua?
57:51	Michael Müller (INGELESA) AZPITITULUAK	Lohmanni zinema industrian inbertsioak egitea bururatu zitzaion – burutapen aski bitxia, itsas armadako ofiziala zela kontuan hartuta. Asmoa zen Alemaniari buruzko filmak ekoitzi eta propagandako mezuak zabaltzea.
58:12	Prof. Muehl Beringaus (ALEMAN) AZPITITULUAK	Helburu hori pisutsua izango zen Lohmannek inbertitzeko erabakia hartzeko, seguru asko. Eta, harekin batera, filmen espekulaziorako aukera zegoen. “Gidoi ona eta antzezle bikainak edukita, diru asko irabaz dezaket”, pentsatzen zuen.
58:32	NARRATZAILEA	Itsas armadaren inbertsioak jasotzeko, aberriari loturiko elementuak txertatu behar zituen Phoebusek bere filmetan. Hala justifikatu zuen Lohmannek, eta hala erakusten dute istorio batzuek.

58:49	<i>Zine errotulua (ALEMAN)</i>	Baina deika dugu gailena, gorena, behin betikoa...
58:54	<i>Zine errotulua (ALEMÁN)</i>	...aberria!
59:00	NARRATZAILEA	Eskandalua lehertu zenean, Alemaniako bigarren zinema enpresako akziodun nagusia zen Lohmann. Phoebusek UFA bakarrik zuen aurretik, baina ez zen ongi moldatu zinema soinudunera, eta hondoratzen hasita zegoen.
59:17	NARRATZAILEA	“Lohmann aferak” hedabide guztietan izan zuen oihartzuna. Legebiltzarraren ikerketa batek erakutsi zuenez, inolako ikuskaritza eta mugarik gabeko kudeaketa bideratu zuen Lohmannek: hainbat milioi marko inbertitu zuen, bere apetari jarraituz. Handik irabazirik eskuratu ez izana soilik zuen bere alde.
59:33	NARRATZAILEA	Eskandalu hark aurretik eraman zituen itsas armadako almiranteburua eta Finantzetako ministroa. Nolanahi ere, lasai zegoen gobernuak: ez zen ezer zabaldu ezkutuko planei eta debekatutako armen eraikuntzari buruz.
59:48	Muehl Beringaus	Ondorioa nahiko sinplea izan zen: Lohmann aske utzi zuten, ez zioten

	Irakaslea (ALEMAN) AZPITITULUAK	inolako zigorrik ezarri, ez ofizial gisa ez negozio gizon gisa. Phoebus etxea desegin egin zuten, eta Correll, bigarren buruzagi nagusia, UFA etxera joan, eta film komertzialak ekoizten saiatu zen han ere.
01:00:23	NARRATZAILEA	Espainian, ordea, berri ezin hobeak zeuden. Mateo García de los Reyes, Itsas ministro berria, Echevarrietaren begikoa zen. Hark emandako lehen agindua itsaspekoak aldatzea izan zen: 12 unitate berri hartu zituzten, Echevarrietaren modelokoak.
01:00:38	NARRATZAILEA	Indarrean zegoen erregeak bere garaian ezarritako baldintza, ordea: itsaspekoak baldintza tekniko jakin batzuk bete behar zituen. Echevarrieta behartuta zegoen prototipoa inolako kontraturik gabe eraikitzea. Arrisku handia zen, baina prest zegoen hura bere gain hartzeko, bere makina eraikitzearen.
01:00:59	Pablo Díaz Morlán (GAZTELANIA)	Primo de Riveraren hitzezko konpromisoa zegoen, kontratu proiektu bat zegoen, kontratu sinaturik eduki ez arren.

		<p>Baina diktadurak hartutako zenbait neurriren bidez ikusi ahal izan zuen Horacio Echevarrietak diktadura bere alde zuela.</p> <p>Hala, berme guztiak eduki ez arren, abagune hartaz baliatzea erabaki zuen: munduko itsaspeko bikainenak egiteko asmoz.</p>
01:01:27	NARRATZAILEA	<p>Gauzak bere onera etorrira zeudela zirudienean, indarberritu egin zen “Lohmann afera”: egunkari anarkista batek iradokizun zehatzak egin zituen Canarisi, Echevarrietari eta Espainiako itsaspeko eraikuntzari buruz.</p>
01:01:41	NARRATZAILEA	<p>Alarma gorria, hala ere, antzinako auzi batek piztu zuen.</p> <p>Rosa Luxemburg eta Karl Liebneckten hilketak argitu gabe zeuden artean, eta agerian gelditu zen Canarisek iraganean gerra zikinarekin izandako lotura. Eskandalua lehertzeko arriskua ikusirik, Canaris lehen lerrotik atera zuen itsas armadak.</p>

01:02:04	NARRATZAILEA	Ipar Itsasoko itsas estazio batera bidali zuten berriro ere, eta urrunetik bizi behar izan zituen gorabehera haiek guztiak.
01:02:15	<i>Michael Müller</i> (INGELESA) AZPITITULUAK	Halako presioa zuten, azkenean ezkutatu egin behar izan baitzuten Canarias. Arrisku handiegia zen hura berriro atzerrira bidaltzea, ezkutuko egiteko baten buru. Echevarrietak eta Espainiako gobernuak Espainiara itzul zedin nahi zuten. Baina Alemaniako Itsas Administrazioak ez zuen onartu. Arriskutsuegia izango zen.
01:02:49	NARRATZAILEA	Azkenean, 1929ko udaberrian, itsaspekoa eraikitzen hasi ziren. Rotterdamen ekin zioten piezak ekoizteari: prozesu delikatuak zen eta IvSko teknikarien arreta osoa erakartzen zuten.
01:03:19	NARRATZAILEA	Halako batean, inork espero ez zuen zerbaite gertatu zen...

01:03:23	NARRATZAILEA	Inoizko hondamen ekonomikorik handienak astindu zuen mundua: lur jo zuten merkatuek, bankuek, industria handiek... eta gobernu osoak galbidera eraman zituen astinaldi hark.
01:03:42	NARRATZAILEA	Hondamendia gorabehera, piezak Cadizera heltzen ziren: langileak eta ingeniariak buru-belarri saiatu ziren ontziolaren 21 egitasmoa gauzatzen.
01:04:19	NARRATZAILEA	Urtebete pasatxoan, prest zuten itsaspekoa. Echevarrietak bere izena jarri zion, harro: E-1, armadaren itsaspekoen sorta bati aurea hartuta. Etorkizun handia izango zuen jaio berriak, itxuraz.
01:04:54	NARRATZAILEA	1930eko urriaren 22a eguzkitsu esnatu zen. Cadizen, irrikaz zeuden denak, itsaspekoa uretaratzeko ekitaldia zela eta. Baina bi hutsune mingarri zituen Horacio jaunak: Primo de Rivera eta erregea; lehena gobernuan dimisioa aurkeztu ondoren hil zen eta bigarrenak egun hartan ez baizik aurrerago joateko hitza eman zion.

01:05:14	NARRATZAILEA	Xanpain botilak kroskoa jo zuen, eta ez zen hautsi: ez da izaten seinale ona. Baina nor ausartu Horacio jaunari egun handi hura garrazten?
01:05:45	NARRATZAILEA	72 metroko altzairuzko egitura hartan bilduta zeuden ontziolaren ilusioa eta etorkizuna. Orduan, itsaspekoak eskakizun guztiak betetzen ote zituen eta erregeak bere hitza betetzen zuen egiaztatu behar zen.
01:06:19	NARRATZAILEA	Echevarrietaren aspaldiko nahia udaberri hartan bete zen. Demokrazia, berdintasuna eta modernitatea goiburu hartuta, Errepublika aldarrikatu zuten Espainian. Baina nola hartu zuen Horacio jaunak erregimen berria?
01:06:39	Pablo Díaz Morlán (GAZTELANIA)	Kontraesana badirudi ere, 1931n Errepublika aldarrikatu izana ez zen berri ona izan Horacio Echevarrietarentzat: errepublikano peto-petoa zen hark ez dut uste poz handiz hartu zuenik Errepublikaren etorrera.
01:06:53	NARRATZAILEA	Alfontso XIII.ari erbesterako bidea zabaldu zioten. Eta antzinako erregimenaren arrasto guztiak desagertuz joan ziren, pixkanaka.

		Ez zegoen batere garbi Echevarrietak errepublika berri hartan zer etorkizun izango zuen.
01:07:17	NARRATZAILEA	<p>Bien bitartean, E-1 ontziaren probak egin zituzten. Teknikari aleman eta espainiarrak elkarrekin aritu ziren. Eta emaitza ikusgarriak eman zituen itsaspekoak: pentsa ezinezko abiadura, material bikainak...</p> <p>Bereziki deigarriak izan ziren torpedoak jaurtitzean burbuilarik ateratzen ez zuten hodi batzuk. Oso txosten onuragarria jaso zuen armadak.</p> <p>Une hartako itsaspekorik onena zen E-1, zalantzarik gabe. Baina, Espainiaren egoera politikoa zela eta, ur nahasietan zebilen.</p>
01:07:54	Pablo Díaz Morlán (GAZTELANIA)	Erregimen berriak ez zituen bere egin Alfontso XIII.aren erregimenak eta Primo de Riveraren diktadurak hartutako konpromiso asko eta asko. Ondorioz, 1931n, gainbehera etorri ziren Echevarrieta errepublikanoaren trikimailu eta amarru guztiak.
01:08:08	NARRATZAILEA	Agintari berriek Espainiaren bake nahia aldarrikatu zuten. Eta, gerrari uko eginik, agendatik kanpo gelditu zen arma oro.

01:08:17	NARRATZAILEA	Echevarrieta monarkikotzat zuten, gainera. Alferrik izan ziren iraganeko konpromisoak: garai batean kide izan zituenek bizkarra eman zioten, eta bata bestearen atzetik baztertuz joan ziren haren lorpen guztiak. Ikusgarriena, torpedo fabrika: kalte ordaina eman zioten, enkarguak entregatu ere egin gabe.
01:08:40	NARRATZAILEA	E-1ek, ordea, ez zuen ordaina jasotzeko eskubiderik, ez baitzuen kontraturik. Gastuak gora eta gora zihoazen ontziolan. Armadak atea itxi zizkiolarik, Espainiatik kanpoko erosleen bila abiatu zen Echevarrieta.
01:08:56	Pablo Díaz Morlán (GAZTELANIA)	Herrialde eta mandatari batzuk etorri ziren itsaspekoa ikustera: Errusia, Polonia, Errumania, eta portugaldarrak ere etorri ziren... Azkenean, saiatu zen itsaspekoa aurrera ateratzen, salmenta nola edo hala gauzatzen. Une hartan, gezurra badirudi ere, bere itsaspekoari begiratu, eta hauxe besterik ez zuen ikusten: “Hona hemen nire ondare guztia”. Baina ez zuen inork nahi, munduko itsaspeko armarik onena izan arren.

01:09:33	NARRATZAILEA	Egoera asko zakartu zen: bazkideek ez zioten onartzen itsaspekoa edozein erosleren esku uztea, ezta edozein preziotan saltzea ere. Zorrak itota zegoen, baina Echevarrietak eutsi egin nahi zion ontziolari, kosta ahala kosta.
01:09:47	NARRATZAILEA	Hala, ondasunak saltzen hasi zen: arte bilduma, elkarteak, banketxe handietako partaidetzak, El Liberal egunkaria, hainbeste etekin eman izan zioten meategiak... Apustu gogorra egin zuen itsaspekoaren alde, eta harexek irentsi zuen dena.
01:10:11	Pablo Díaz Morlán (GAZTELANIA)	Alemaniarekiko harremanen porrotak, Canarisekin eta alemanekin egindako hitzarmenak hondoa joarazi zioten. Egia da 1930-31tik aurrera munduko krisiaren ondorioak jasan izango zituzkeela bestela ere, baina aurrera aterako zen nolabait. Baina, jakina, zure indar guztiak “tramankulutzar” bat egitera biltzen badituzu, eta gero inork erosi nahi ez badu, eta torpedo fabrika nazional bat eratzen baduzu, eta gero inork nahi ez badu, zureak egin du. Eta horixe gertatu zitzaion berari.

01:10:43	<i>Michael Müller</i> (INGELESA) AZPITITULUAK	Helburua lortzeko zorian egon ziren 1929-30 inguruan. Echevarrieta fabrika eraiki eta itsaspekoak ekoizten hasteko zorian egon zen. Baina, 1931n, goitik behera aldatu zen dena: Primo de Riveraren gobernuak hondoa jo zuenean, ez zegoen itzulbiderik. Alferrik ziren 6-7 urte haietako ahalegin guztiak.
01:11:42	NARRATZAILEA	Librepentsalaria izanik, Echevarrietarentzat oso gogorra gertatu bide zen Errepublikak bera arbutzea. Baina erregearen laguna zen eta horrek eragin handiegia izan zuen. Haren patua idatzita zegoen.
01:11:53	NARRATZAILEA	Horrela uler daiteke nolatan onartu zuen enkargu ilun bat, itsaspekoa erostearen truke. Amarru bat izan zen eta oso ondorio larriak ekarri zizkion. Zigor bat, eta agerian utzi zuen bere denbora amaitua zela; noiz, eta Espainiaren historiako unerik nahastetsu batean, hain zuzen.
01:12:16	NARRATZAILEA	E-1 itsaspekoak aurkitu zuen jabea, azkenik: Turkiako itsas armada. Ontzia Alemaniaren beste aliatu bati salduta, zorrak kitatu zituen ontziolak. Baina bizkorregi zebilen mundua, ordurako.

01:12:40	NARRADOR	Itsaspekoaren historia ezabatuta, zertan gelditu ziren plan haiek? Nola utzi albo batera hiru gizon berezi haien lorpenak?
01:12:53	Johann Lohmann (ALEMAN) AZPITITULUAK	1927an eskandalua lehertu zenetik Lohmann hil zen arte, 1930era arte, hiru urte eskas igaro ziren. Eta ez dago hari gertatutakoari buruzko berri askorik. Osasun kaskarra zuen, eta Erroman hil zen; beste daturik ez da.
01:13:23	NARRATZAILEA	Paramilitar haiek eta herrialdea berriro armaz hornitzeko programek marraztu zuten Alemaniaren hurrengo urteetako bidea. Gerra Handian galdutako ohoreaz baliatuta, gerra are ankerrago batera eraman zuen nazionalsozialismoak mundua. Berrito lehen lerroan, Canarisen izena nabarmendu zen, berrito ere; Alemaniako armadako Abwehr espioitza sarearen buru, oraingoan. Sare hari esker, mito bihurtu zen... betirako.
01:13:51	<i>Michael Müller</i>	Zorte kontua bazen, ez zuen zortea inoiz aintzat hartu.

	(INGELESA) AZPITITULUAK	Bere karrerak elezaharretako pertsonaia bihurtuko zuen, Alemaniako inteligentziaren buru gisa... Bigarren Mundu Gerran. Baina, 1944an, eten egin zen bide hura. Alemaniako erresistentziarekin harremanak zituela egiaztatu zutenean, heriotza zigorra ezarri zioten.
01:14:38	NARRATZAILEA	Bizimodu eta pentsamolde haien arrasto oro ezabatuz joan ziren, Echevarrietaren oroitzapena ezabatu zen bezala. Bilboko kanpoaldeko jauregi batean bizirik jarraitzen du hein batean, haren bi seme-alaba bizi baitira bertan.
01:15:08	José María Echevarrieta (GAZTELANIA)	Eta hementxe gelditu ginen. Eta hemen hil ziren aita, ama, izeba, zaintzaileak... Hementxe hilko gara zahar guztiak. Hemen geldituko gara. Etxe guztiak desagertu, eta, hara, honetantxe gelditu gara: gurea ez zen honetan.
01:15:43	Pablo Díaz Morlán (GAZTELANIA)	Francok gerra irabazi eta hogeita hamar urtetik gorako diktadura ezarri zuelarik, begi-bistakoa zen errepublikano batek ez zuela arrakasta handirik izango gizaratean. Gainera, Horacio Echevarrieta ez zen aspaldiko hura.

		Adinekoa zen, baina ez zen hori bakarrik: galdua zuen garai bateko itzala, ez zeukan garai bateko botererik: ez politikoa, ez soziala, ez ekonomikoa. Eta, horrela, jakina, ahaztuta geratu zen.
01:16:17	NARRATZAILEA	<p>Echevarrieta inperioak, itsaspekoaren abenturak kalte hartuta, oihartzuna galdu zuen.</p> <p>Gerra Zibila eta beste hondamen batzuk bizi zituen, halere, eta itsasontziak uretaratzen jarraitu zuen, urte askoan. Don Horacio Munoako bere jauregian hil zen, 1963an, 92 urterekin.</p>
01:17:18	NARRATZAILEA	<p>Alemaniarren programa laster geratu zen agerian. 1935ean, indargabetu egin ziren Versaillesko debekuak, eta, oso denbora laburrean, itsaspeko berri batek harri eta zur utzi zuen mundua.</p> <p>VII mota , Cadizen E-1 itsaspekoa eraiki izanaren fruitua izan zen.</p> <p>Handik gutxira, urpean bere legea ezartzeko aukera eman zion Bigarren Mundu Gerrak, eta gudu odoltsuenen gertaleku bihurtu zen itsasoa, berriro ere.</p>